

**ORAIN DALA 50 URTE EUSKAL HERRIAN
KARMENGO ESKAPULARIOAREN
700. MENDEURRENA OSPATZEN**

Karmengo Ordenak hain bere-berea duen Karmengo Amaren Eskapularioaren 750. urteurrena dugun gertakari erlijioso delako eta, egoki iruditu zaigu gizarte, erlijio eta kultura ikuspegiz atzerantz begirada luzatzea, hau da, nola ospatu zen 700. urteurrena Euskal Herrian 1951n gogora ekartzea. Mundu zabalean oihartzun handia izan zuen gertakaria izan bazen ere, guri, Euskal Herrian eta karmeldar euskaldunek munduan zehar nola bizi izan zuten begiratzea interesatzen zaigu.

Karmeldar euskaldunek, Andre Mariak Eskapulario santua San Simon Stock-i eman zioneko egintzaren VII. mendeurrenean, Karmeldar Oinutsen Ordenako Nafarroako San Joakin probintzian egin ziren egintza gomutagarriak jasotzen dituen liburu bat argitaratu zuten (*Actos conmemorativos de la entrega del santo Escapulario a San Simón Stock en su VIII^o centenario, desarrollados en la provincia de San Joaquín de Navarra de la Orden de Carmelitas Descalzos, 1251-1951*, Vitoria, 1954, 143 or.); lan horretatik jasoko ditugu lan hau idazteko erabiliko ditugun berriak. Hala ere, liburu horrek Aita Karmeldarren komentuen inguruan izandako ospakizunak bakarrik jasotzen di-


tu. Hori dela eta hainbat datu falta dira; besteak beste moja karmeldarrek eta beste makina bat elkartek bizi izandako datuen berri jasotzea.

Mendeurren horretako ospakizunek arrakasta handia izan zuten batez ere herritarren artean; jende pila handiak bildu ziren hor eta hemen; erlijio-agintari nagusiak ere, jakina, ezin parte hartu gabe geratu halako gertakari batek eskatzen zuenaren mailan.

BIZKAIA

Markinan, errestaurazio ostean Karmeldarren Ordena Euskal Herrian (eta bertatik Espainia osoan, Indian eta Ameriketan) zabaltzeko abiagune izan zen komentuan, VII. mendeurrena zela eta ezohizko herri misioa antolatu zen, sermoigile lanetan Aita Juan Vicente, Aita Genaro eta Aita Rogelio ospetsuek parte hartuz. Ospe handiz egindako Karmengo bederatziumenari amaiera egokia emateko uztailaren 16an, Karmengo Amaren egunean, meza nagusia, buru Vijayapuram-go (India) apezpiku zen Aita Ambrosio Abasolo Lekue Karmeldar oinutsa zuela ospatu zen.

Aipamena merezi du Markinako karmeldarren elkarteko kide batzuk



Bizkaiko hainbat eta hainbat herritan “Eskapulariaren egunak” antolatuz burutu zuten lanak ere. Besteak beste, hurrengo herri hauetan ibili ziren: Elantxobe, Ibarangelua, Mendata, Ereño, Gatika, Elgoibar, Mutriku, Bermeo, Albiz, Gerrikaitz, Aulestia, Berriatua, Izpaster, Mendexa, Bedarona, Natitua, Ea, Amoroto, Belendiz, eta abarretan.

Eta literatura gertakari arloan gogora ekartekoa da Markinako elkarteko kide zen Aita Emilianok argitaratu zuen *Andre Maria Euskalerriko mendietan* (Bilbon, 1951, 265 orr.) liburu ederra. Egileak eskaintza hau egiten du 1. orrialdean:

Zuri,
Andre Mari,
Karmel Mendiko Lili usaitsu
Zoragarri...

Zuri...
Odei txuri,
Ene Ama ta Erregin Bikain
Zeran Orri...

Zuri
Sortzez Garbi
Poz-atsegiñez eskeintzen dizut
Gogo-opari...

Zuri irudi
Berdingabea goraltzen duten
Euskalerriko Andre Mari
Koroiatuen zoragarritzko
Koroi ori.

Tori,
Zuk bein guri
Eman zenigun Kutunaren
Oroigarri.

Larrean eta **Amorebietan**, urte batzuk geroago burutuko zen Larreako Karmengo Ama koroatzeko asmoak agertuz ospatu zuten mendeurrena. Larreako karmeldarrek ere arrakasta handiz ospatu zituzten “Eskapularioaren egunak”. Elizkizun ederrez egindako Karmengo Amaren bederatziumenari, uztailearen 16an, Karmengo Amaren egunean, Aita Seberiano buru zuela, abestu zen meza nagusiak eman zion amaiera.


Begoñako aita karmeldarrek Bilboko parrokia nagusi guztietan parte hartuz ospatu zuten: horretan 22 erlijiosok hartu zuten parte, eta 24.000 pertsonari jarri zioten Eskapulario santua.

Baina jubileo-urteko egintzarik nagusia **Santurtziko** arrantza-portuaren sarreran Karmengo Amaren monumentua ezartzea izan zen. Udalak VII. mendeurreneko ospakizunekin bat egitea nahi izan zuen. Bertan ospatu ziren egintza arranditsu eta jendetsuek kolorez bete zituzten hasierako egintza eta VII. mendeurrena.



Santurtziko arrantza-portuaren sarreran Karmengo Amaren monumentua ezartzea.

Begoñan Karmeloko Karmengo Ama.



Larreako Karmengo Ama

GIPUZKOAN.


Donostian, Karmengo Amari eskainitako omenaldiak luzaroan iraungo zuen bertakoen gogoetan. Apirilaren 22-23an, mendeurrenari hasiera eman baino bi hilabete lehenago, Nafarroako S. Joakin Probintziako Karmengo Hirugarren Ordenakoen Bilera Nagusia egin zen; bilera horrek, goiburutzat “Kontenplazioa eta apostolutza” izan zuen.

Ikusgarria izan zen, batez ere, flotak zaindari duen Karmengo Amari eskainitako “Flotaren eguna”; baita ere, hori zela eta hirian eta Kontxako badian zehar eginiko elizbira; hainbat itsasontzi eta jende pila galanta bildu ziren bertan. Elizbarrutiko apezpikuak, Jaime Font Andreu jaunak ere parte hartu zuen.

Elizbarrutiko Aldizkari Ofizialean (1954ko ekainaren 1eko 10. zk.) Gipuzkoan egindako omenaldien berri jaso zen “*Séptimo Centenario del escapulario de la Virgen del Carmen*”



Donostiako Karmengo Ama.



Donostiako portuan.



Donostiako portuan.

izenburua duen idazlan batean; bertan “aparte-aparte-kotzat” jotzen dira burutu ziren egintzak.

Altzon, karmeldar elkarte oso txikia izan arren, lan handia egin zuten, batez ere S. Eliasen Aita Leonek, Orio arro osoan, Zumarragako parrokiatik Andoaingo ateetaraino Eskapulario santuaren berri zabalduz. Egin-eginean ere 60 parrokiatan, 7.000 eskapulario ezarri zituzten.

Eibarren ez ziren atzetik ibili; Karmeldar Astea ospatu zen elizbira, hitzaldi, kontzertu eta guzti; Ansola anaia txistulariek musika ozen eta erakargarriz alaitu zituzten herriko kaleak. Baina gertakaririk nabarmenena Eibarko komentuko Karmengo Amaren eliza eraikitze-ko lehen harria ezartzea izan zen.



ARABAN.

Gasteizen egin zen hasiera emate ofizialean, karmeldar probintziaren egoitza bertan delarik, halako egintza bati zor zitzaion bezala, foru agintariak eta hainbat apaiz eta erlijiosoen ordenetako ordezkari batu ziren. Mendeurrenaren pregoia 1950eko ekainaren 25ean egin zen Karmengo elizan. Egun horretan karmeldarrak Familia Santuaren Aita Hipolito probintziala buru zela zeuden bertan.

Gasteizko karmeldarren etxeko aita erlijiosoek Araban zehar herririk herri ibili ziren Eskapularioren berri

ematen. Honetan gehien nabarmendu zena Karmengo Amaren Aita Salvador arabar idazlea izan zen.

1951ko maiatzaren 7an kultur egintza bat egin zen Udal Aurrezki Kutxaren erakusketa aretoan; hizlaria Sortzez Garbiaren Aita Juan Jose Gasteizko semea izan zen. Beste hiru hitzaldi-sorta ere egin ziren; hitzaldiak ematen, Aita Arriola, Martin Abril jauna, Ameriketako misiolari izandako Santa Teresaren Aita *Seberino* (*La devoción de la Virgen del Carmen en América*), Carrasco jauna, etab. bildu ziren.



Gasteizko Karmengo Ama

Elizako ospakizunen artean Karmengo Amaren bederatziurrena eta uztailaren 16ko jaia nabarmendu ziren. Hainbat pertsonalitate ospetsu bertan zirela eta zenbait elkartek parte hartuz elizbira jendetsu bat egin zen hirian zehar.

NAFARROAN.

Iruñean Enrique Delgado Gómez artzapezpikuak eman zion mendeurrenari hasiera Eskapulario santuaren VII. mendeurrenari buruzko idazki bat argitaratuz (Iruñea, 1951ko otsailak 19). Iruñeko karmeldarren etxean, karmeldar teresiarak Euskal Herrian dugun eraikinik zaharrenean (1587), Karmengo Amarenganako debozioa agertzeko gogo biziz aurkitu zituen bertako fraileak VII. mendeurrenak. Ageriko gomutagarria uztailaren 14an Karmengo bederatziurrenari hasiera eman zitzaion egunean bertako elizan jarri zuten argi-zintzilikaria bikaina dugu. Erlikebean landuta Karmengo Amaren irudia, eta gaztelaniaz "*Zure eliztarren eskaintza, 1251-1951*". *Agur Maria. Eskapularioaren Zazpigarren Mendeurrena*" idazkia ditu.

Uztailaren 16ko Karmengo Amaren eguneko ospakizunetan S. Luis Gonzagaren Aita Amalioren anaia zen Emeterio Echevarria, Ciudad Real-eko artzapezpikuak hartu zuen parte. Azaroaren 2tik 10era Karmengo Amaren Eskapulario santuari eskainitako bederatziurren berezia egin zen, hiriko hainbat kofradiak parte harturik; eta 11n "Eskapularioaren eguna" ospatu zen, hiriko parrokia guztietan eskapularioaren ezarketa eginez; egun horretan izan ziren elizkizun ezberdinetan Pablo Gurrpide Sigüenza-ko artzapezpikuak, Enrique Delgado Gómez Iruñako artzapezpikuak eta Jose Omedo Arrieta, Olivako monastegiko abata mitradunak parte hartu zuten. Beste jarduera gogoangarri bat *Príncipe de Viana* erakundearen babespean burututako kultur omenaldia eta foru jokoak izan ziren. Bertan 8 sari banatu ziren.

Korellan liturgia ekintzak egin zituzten, hala nola, gertakaria gogoratzeko egin zuten aparteko bederatzaurrena.

Alesbesen (Villafranca) uztailaren 1ean eman zioten hasiera mendeurrenari, jarraian 7tik 15era bitartean Karmengo Amaren bederatzaurrena eginez, eta jai handia 16an. Baina Alesbesko aita karmeldarrek mendeurrenari erliebe praktiko eta iraunkorra eman nahirik Andre Mariaren eliza eraberritzea erabaki zuten, eliza pintatuz, gurutze-bide berria jarriz, eta argia eta leihotzarretako beirateak berriztatuz.

KANTABRIAN, ERRIOXAN ETA PORTUGALEN

Euskal Herriko karmeldarren San Joakin probintziak bazituen penintsula barruan VII. mendeurrena egokiro ospatzen ahalegindu ziren beste komentu batzuk ere.

Rigadako basamortuan bakardade osoan bizi ziren karmeldarrek ez zuten kanpora begira ospakizunik antolatu; bai, ostera, komentu barruan gerkatari aparta hori gogoan izan urte osoan zehar: elkarrizketa espiritualak, hitzaldiak eta abar antolatu zituzten, eta “mendeurreneko asteak” deitu zituztenak bezalako hainbat aparteko ospakizun burutu.

Santanderren karmeldarrek kultur eta erlijio aste bat antolatu zuten 1951ko abenduaren 17etik 20ra bitartean; lau hitzal-



di izan ziren; jarraian, amaiera emateko 21, 22 eta 23 egunetan hirurren nagusia.

Eta **El Soto-n** inguruetakoko herri eta parroketan ospatu zuten, batez ere uztaileko Karmengo Amaren bederatziurrenari aparteko garrantzia emanaz.

Logroñon ekainaren 23tik 25era bitartean herri adierazpen garrantzitsuak burutu ziren, aparteko aipamena merezi duela-rik Errioxako zaindaria den Valvanerako Andre Mariaren santutegira 40 autobusetan egindako bisitaldiak. Uztailaren 4tik 6ra bitartean erlijio eta kultura alorreko hitzaldiak antolatu ziren, eta Karmengo Amaren bederatziurrena ospakizun handiz uztailaren 7tik 15era bitartean, eta 16ko ospakizun nagusia.

1951n **Portugalgo** karmeldarren etxeak Euskal Herriko karmeldarren probintzia barruan aurkitzen ziren, eta hainbat karmeldar euskaldun bizi ziren bertan. Burututako egintza nabarmenen artean Fatiman izandako aparteko egintza aipatu behar. Bertan sagaratu zen apaiz 1951ko abuztuaren 13an, XX. mendeko lehen karmeldar portugesa. Fatima eta Karmengo Ama esku-eskutik agiri dira. Bertan agertu zen Maria bertako artzain txo ikusleei karmeldarren jantzia zeramala 1917ko urriaren 13an, eta debozio horren berri zabaltzeko eskatu zien. Fatiman karmeldar hirugarrendarren bilketa nagusi handia egin zen; eta egintza horren gailurra eliztar erromesei 1951ko urriaren 13an




115.000 eskapulario jartzea izan zen. Averno, Oporto, Viana do Castelo, Elvas, Funchal (Isla de Madeira), eta abarretan hainbat ospakizun eta apostolutza jarduera burutu ziren Karmengo Amaren eskapularioaren esangura emanaz.

INDIAN ETA AMERIKAN.

Euskal karmeldarrek India eta Hego Amerikako lurralde bazuetan ere sakabanatuta ziharduten apostolutza lanean.

Indiako misio-jarduerari 1877an eman zitzaion hasiera lehen euskaldun misiolariak Markiñatik joan zirelarik; ordutik aurrera hainbat fruitu eman dute Indian, bai herritarren artean bai bertako apaizen heziketa lanetan. Bertan lanean jardundako hiru misiolari euskaldun (Aita Aureliano, Aita Juan Bizente eta Aita Zakarias) santu izendatuak izateko bidean ditugu. 1951n oraindik hainbat misiolari euskaldun zeuden Malabarren (India). Eskapularioaren mendeurreneko egintzak gertatzeko batzordea sortu zenean bertan ageri zaizkigu Jainkoaren zerbitzari den Aita Zakarias eta Aita Aureliano beneragarria, San Migel lekeitiarra, geroago apezpiku izango zena, Aita Joseba Zubikarai orain dela 6 urte Markinan hil zena, eta abar.

Karmengo Ama Mariaren omenez manifestazio handi bat ospatu zen. 1950eko abenduko 29, 30 eta 31. egunak betiko urrezko lumaz idatzirik geratu ziren Malabarko elizaren histo-



Eskapularioaren mendeurreneko egintzak gertatzeko batzordea Indian.




Indian.

rian. Kontzentrazioa, Ernakulam-en egin zen; gobernuak antolatzaileen esku jarri zuen 400.000 pertsonentzako leku erosoan duen "Herbert Goruds" zelai handi ospetsua; egintza batean 50.000 pertsonak parte hartu zuten; beste batean 100.000 pertsona batu ziren; hirugarren batean 800 apaiz eta 100.000 pertsona inguru; eta azken batean, 300.000 pertsonatik gora. Bide batez Vijayapuram-eko artzapezpikua, Ambrosio Abasolo, Amorebietako semea zela gogoratu behar dugu. Baina erlijio-manifestazio handi guzti hauen antolatzailea Sakramentu Santuaren Aita Aureliano beneragarria, Alwayeko seminario nagusiko errektorea izan zen.

Hala ere, askoz ere karmeldar euskaldun gehiago aurkitzen ziren Hego Amerikan zehar. Karmeldarren hiru delegazioetan (Txile, Peru, Kolonbia) ikusgarriak izan ziren egintzak; ugariak kongresuak; eta kontaezinak ospakizunak, herritarrek buru-belarri parte hartu zutela.

Txilen: azaroaren 17tik 20ra bitartean Milipillako (Santiago) artxidiozesiko kongresu karmeldarra egin zen; 1950eko abenduaren 27tik 31ra bitartean estatuko kongresu andremariarra Concepción hirian; parrokiaren arteko beste kongresu andrema-



Txileko Santiagon.

riar bat, 1950eko irailaren 21etik 24ra bitartean; etab. Karmeldarrek eskapularioaren mendeurrenean esku-hartze zuzena izan zuten beste eukaristia kongresu batzuk ere ospatu ziren: Rangaguako elizbarrutiko III. Eukaristia Kongresua (1951ko urriak 3-7), Valparaisoko X. Kongresu estatala (1951ko urriak 10-14), etab.

Horiek hala badira ere, Karmengo Amaren Eskapularioaren mendeurrena zela eta burututako ospakizun karmeldarrak batez ere gure zentro karmeldarretan ospatu ziren: Santiagoko karmeldarren elizan; Txillan, Valparaiso, Viña del mar, San Fernando eta abarretako komentuetan, eta herrialdeko beste leku batzuetan, hala nola, Temuco, Rengo, Santa Bárbara, eta abarretan. Aparteko aipamena merezi dute Moja Karmeldar Oinutsen hainbat monasteriok. Gogora ditzagun ospakizun ederrak antolatu zituzten hurrengoak: Carmen de San Rafael (Santiago), Carmen de Jesús María (San Bernardo), Carmen del Espíritu Santo (Los Andes; bertan bizi izan zen Txileko lehen santa, Andeetako santa Teresa, 19 urte zituela 1920an hil ze-

na), Carmen de la Santísima Trinidad (Valparaiso), Carmen del Sagrado Corazón (Viña del mar), Carmen de San José (Santiago), Carmen de Nuestro Señor Jesucristo (Concepción), Carmen de Santa Teresa (Talca), Carmen de Cristo Rey (Santiago), Carmen del Smo. Sacramento (La Serena)...

Aipatzekoak dira, baita ere, Eskapularioaren VII. mendu-
rrera zela eta burutu zituzten misio-egintza ugariak: elkarren
segidako berrogeita lau misio-emanaldi.

Perun ere, Eskapularioaren VII. mendurrenerako Batzorde
Antolatzaile karmeldarra eratu zen, buru Santa Teresatxoren
Aita Rikardo izan zuela. Juan Gualberto, Limako artzapezpiku
eta kardinal primatu zenak idazki pastoral bat idatzi zuen
Leguako Karmengo Amaren koroatze kanonikoa zela eta.
Hainbat egintza burutu ziren koroatze hori ospatzeko.
Ikusgarria izan zen urriaren 12koa, La Leguako Karmengo Ama
handikiro Callaoko badiatik elizbiran erabili zutenekoa.
Egintza horren bidez eman zion hasiera Ama Birjina honek
karmeldar elizetatik zehar egin zuen bisitaldiari.

Kolonbian hainbat egintza gogoangarri burutu ziren
Karmengo Amaren Eskapularioaren debozioaren berri emate-



Sonson-en (Kolonbia).

ko. Ospakizun horiek, batez ere, Leiva, Sonson, Palmira, Kali eta Pereiran egin ziren. Kolonbiako apezpikuek buru-belarri jardun zuten Andra Mariaren debozio honen berri ematen.

Julen Urkiza - Patxi Uribarren